



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko apirilaren 1a

45. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazio-ko goi karguen bateraezintasunei buruzko 16/1996 Foru Legea aldatzen duena. EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek aurkeztu dute (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Ezkabako presoek hilotzak lurpetik ateratzen lagun dezan eta lan-mahai bat era dezan gotorlekua Nafarroari itzultzeko. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da azpiegituren arloko baliabide berekiak optimizatzean oinarritutako egiturazko neurrien aldeko apustua egin dezan. EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da neurri eraginkorrak har ditzan, etxeko langile gisa lan egiten duten pertsonak abusuzko jardunbideetatik babesteko. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da beharrezkoak diren alde aurreko izapide guztiak egin ditzan Sunbillan ikastetxe publiko berri bat eraikitzeko. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak eta Nafarroako Alderdi Popularrako eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioak direla-eta Legebiltzarraren Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak bete ditzan. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeak eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da datu-base bakarra sor dezan, Nafarroako ezein administrazio edo entitate publikok eskain dezakeen enplegu-eskaintza eta -eskari guztia bilduko duena. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hitzarmena eta etxeko langileen lan duinari buruzko 201. Gomendioa berrets ditzan. María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztu du (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, LOMCEren, unibertsitateko tasen eta unibertsitateko sexismoaren aurka martxoaren 17an egindako mobilizazio-jardunaldian gertatutako indarkeria eta hertsapen ekintzak arbuia-tzekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu iragan martxoaren 17ko mobilizazioen ondotik Iruñeko kaleetan izandako indarkeria. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu manifestarien gutxiengo batek iragan martxoaren 17an, ostegunez, udaletxearen, Udaltzaingoaren ondasunen eta hiri al-tzarien aurka egindako eraso, bai eta dendek pairatutakoa ere. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Tuterako eskola publikoetan bi lerro ixteari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (18. or.).
- Galdera, IdiSNA-Nafarroako Osasun Ikerkuntzako Institutuaren Patronatuari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (18. or.).
- Galdera, SICAVen egoitza fiskala aldatzeak foru erkidegoaren funtsei begira ekarriko duen kostuari buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, 2015eko azken seihilekoan enpresa berriak ezartzeari eta Nafarroako enpresak deslokalizatzeari buruzko datuak direla-eta egiten den balorazioaren gainekoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuako departamentuek edo haren menpeko erakunde autonomoek lizitatu edo/eta esleitutako kontratuei eta Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeko 49. artikuluan jasotako klausu-lei buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen finantzaketari buruzkoa. Jokin Castiella Imaz jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-zentroetako lan-gatazkari buruzkoa. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak egin du (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan martxoaren 17an izandako istiluei buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, Gendulaingo UPSko hirigintza esparruko 1., 2. eta 3. exekuzio-unitateak birzatatze proiektuen izapidetzeari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, Iruñeko Ermitagaña ikastetxe publikoan Ingelesezi Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, Iruñeko José María Huarte ikastetxe publikoan Ingelesezi Ikasteko Programa eskaintzeari buruz-koa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (24. or.).
- Galdera, Zizurko Camino de Santiago ikastetxe publikoan Ingelesezi Ikasteko Programa eskaintzeari buruz-koa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, Berriozarko Mendialdea I ikastetxe publikoan Ingelesezi Ikasteko Programa eskaintzeari buruz-koa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan Ingelesezi Ikasteko Programa eskaintzeari buruz-koa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (26. or.).
- Galdera, Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoan Ingelesezi Ikasteko Programa eskaintzeari buruz-koa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (27. or.).
- Galdera, errenta bermatuari buruzko aurreproiektuaren zenbatespen ekonomikoari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (27. or.).
- Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren organigramari buruzkoa. Ana María Beltrán Villal-ba andreak egin du (28. or.).
- Galdera, Nafarroako enpresetan kontratazioa laguntzeko aurreikusitako neurriei buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (28. or.).

- Galdera, Foru Ogasunak Nafarroako SICAVetatik lortutako zergen bidezko diru-bilketari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (29. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak ETA banda terroristaren biktima nafarren memoria ohoratze aldera 2016an egingen dituen ekitaldiei buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (30. or.).
- Galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak zer arrazoi izan zuen Ingelesez Ikasteko Programaren ezarpenari buruz 2015eko urrian egindako txostenaren datuak ezagutzera ez emateko. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (30. or.).
- Galdera, Ingelesez Ikasteko Programa ezarria duten ikastetxeen kanpo ebaluaziorako txostenei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (31. or.).
- Galdera, 2015ean justifikatu gabe huts egindako mediku-hitzorduei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (32. or.).
- Galdera, gizarteratze errentak jaso dituzten familia-unitateek jasotako laguntza osagarri eta bereziei buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (33. or.).
- Galdera, erakunde publikoek eta Vianako Printzea Erakundeak balio artistiko eta historikoko eraikinetan egindako inbertsioei eta gastuei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (33. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Lantaldea, Foru Berria berraztertze, gaurkotze eta Nafarroaren XXI. mendeko errealitate sozialera egokitzeko. Foru Araubideko Batzordeak onetsia (35. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikari lanpostu bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko (36. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko 16/1996 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek Foru Lege proposamena aurkeztu dute, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko 16/1996 Foru Legea aldatzen duena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko 16/1996 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko 16/1996 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

I

Krisi ekonomikoak, gizarte-desberdintasunaren areagotzeak eta ustelkeria politikoak markaturiko testuinguru honetan, oinarririk ez dauka gisa horretako pribilegio berezi horiek ematea gure Foru Komunitateko goi kargu izateko ohorea izan zutenei; izan ere, goi kargu izatea berez da ordain-sari bat, baldin eta ulertzen badugu zerbitzu publikoa dela ekintza politikoa gauzatze aldera beren botoa pertsona jakin bati eman dioten herritarrentzat buru-belarri aritzea.

Lehendakari ohi eta goi kargu ohienganako errekonozimendu soziala foru araubidean jada ezarritako ohorezko eta protokolozko tratamendurekin agortu beharra dago, gaur egun ez baita bidezkotzat jotzen horiei onura material eta ekonomikoak ematea, justifikaziorik ez dutenak gaur egungo inguruabar ekonomiko eta sozialen argitan.

Horri gehitzen zaio litekeena dela ezustean ezagutzea goi kargu horietan aritu diren pertsonetako edozeini buruzko gertakariak, bere agintaldia baino lehen, bitartean edo gero gertatutakoak, legeak ematen dien begiramenaz gozaten jarraitzea merezi ez izaterainokoak. Kasu horietan, erakundearen duintasuna eta ohorea gorde behar dira, eta agerian utzi behar da gertakari horiek ez dagozkiola lehendakari ohi bati edo kontseilari ohi bati, eta, horrenbestez, horien erantzuleak ezin duela ohorezko karguari loturik jarraitu.

Ondorioz, foru lege honek, indarra hartzen duenean, gure Foru Komunitatearen errealitate sozial, ekonomiko eta politikoak gainditu duen araubide bat indargabetuko du, halako moduan non geldituko den sistemak –kentzen diren pribilegio ekonomikorik gabekoak– araubide egokiago bat ekarriko baitu Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren arrazoizkotasunaren eta funtzionaltasunaren ikusmoldetik.

1. artikulua. Nafarroako Gobernuak kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3 bis artikuluko 1. idatz-zatia honela geldituko da:

“Kargua utzi eta hurrengo hamar urteetan, goi karguek ez dute jarduera pribatuetan aritzerik izanen baldin eta jarduera horiek zerikusia badute kargua betetzen ari zirela haiek ebatzitako espedienteekin; era berean, ezin izanen dute laguntza teknikoko kontraturik izenpetu administrazio publikoekin, ez eta zerbitzuko edo antzeko ere.

Foru lege honen aplikazio esparruan sartutako goi karguetakoren batean aritutako pertsonak etorkizunean beteko duten jarduerari buruzko jakinarazpena egiten diote foru lege honetan ezarritako

jardueren eta interesen erregistroari, aurreko lerrokadan adierazitako epean. Erregelamendu bidez zehaztuko dira jakinarazpen horren norainokoa eta edukia.”

2. artikulua. Indargabeturik gelditzen dira Nafarroako Gobernuak kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioak goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3 bis artikuluko 2., 3., 4., 5. eta 6. idatz-zatiak.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematea.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege honetan xedatutakoa betetzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Ezkabako presoen hilotzak lurpetik ateratzen lagun dezan eta lan-mahai bat era dezan gotorlekua Nafarroari itzultzeko.

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Ezkabako presoen hilotzak lurpetik ateratzen lagun dezan eta lan-mahai bat era dezan gotorlekua Nafarroari itzultzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ezkabako presoen hilotzak lurpetik ateratzen lagundu dezan eta lan-mahai bat eratu dezan gotorlekua Nafarroari itzultzeko.

Armadak 1987. urtean utzi zuen Ezkaba mendiarren gailurrean dagoen Alfontso XII.a gotorlekua, eta 1991n azken zaintza-taldeak erretiratu zituen. Harrezkero hutsik eta abandonaturik dago eta horrek arrisku handia dakar eremu horretara hurbiltzen diren lagunentzat –eta asko dira–. Gainera, 2001eko azaroan, Ministro Kontseiluak kultur

intereseko ondasuntzat deklaratu zuen Alfontso XII.a gotorlekua, monumentu kategoria esleituta.

Diputatuen Kongresuko Defentsa Batzordea, hainbat aldiz, Alfontso XII.a gotorlekua Nafarroari itzultzearen alde agertu da. Ekimen horietan azaltzen zen beharrezkoa dela administrazio zentralaren eta foru administrazioaren arteko elkarrizketei berrekitea, aipatu gotorlekua lagatzea ahalbidetuko duen hitzarmen bat sinatze aldera; hitzarmen horrek proiektu integral bat ekarriko du, instalazioa aisiarako eta xede sozialetarako erabiltzen lagunduko duena eta Ezkabako espetxeko biktima guztiak omentzeko balioko duena.

Ildo horretatik, hainbat aldiz, inguruko udalek interesa aurkeztu dute lagapen hori lortzeko. Antsoain, Berriozar eta Berriobeitiko Udalek xede horri begira egin dute lan, eta administrazio desberdinek osatutako lan-mahai baten oinarriak ezartzeko asmoa adierazi dute. Lan-mahai hori beste sektore batzuen –soziala, ekonomikoa, ingurumenekoa eta abar– parte-hartzeari irekita egonen da, eta ingurune horretarako dauden aukerak zehaztea izanen du helburu.

Hori dela eta, beharrezkoa da uztartzea ingurunearen berreskuratzea, ingurumenaren eta paisaiaren arloan, eta eraikin horrek nafarron oroiaren kolektiborako duen esanahia; izan ere, erkidego honek gerra zibilaren eta frankismoaren garaian bizi behar izan zuen dramaren ikurra da.

Jakina denez, gotorleku hori ez zen inoiz erabili gotorleku gisa. 1936tik 1945era bitartean, 6.000tik gora pertsona sartu zituzten presondegi horretan, eta 800 preso baino gehiago erailak izan ziren, edo eritasunen ondorioz hil ziren bertan.

Presoen biografiari begirada azkar bat eman da, atzematen da gotorlekua ez zela izan tokiko kartzela, frankismoaren errepresio-zirkuituko osagai garrantzitsu bat baizik. Esaterako, preso guz-

tietatik 1569 Gaztela eta Leongoak ziren, 622 Gali-ziakoak, 516 Euskadikoak eta 399 Madrilgoak. Beraz, nafar presondegi horretan autonomia erki-dego guztietako presoak egon ziren. Areago, beste herrialde batzuetako 55 pertsona ere espetxeratu zituzten.

Ezarrirako errepresioaren irudian islatzen da, halaber, zeinen ankerra eta sistematikoa izan zen. Ziur aski, 200 preso nafar erail zituzten estatu-kolpe frankistaren hasierako uneetan. Gainera, 1942a baino lehen 203 hil ziren eritasunen ondorioz eta Antsoaingo Zendeako hamabi herrietako hilerrietan lurperatu zituzten. 1938ko maiatzaren 22an gertatu zen ihesaldian fusilatu zituzten 207 preso barreiatuta geratu ziren hilobi komunetan, 50 kilometroko itzulunguruan. Ihesaldia antolatuz zuten 14 preso gerra-kontseilu baten ondorekin fusilatu, eta Iruñeko hilerrian lurperatu zituzten. Haien gorpuzkiak desagertu egin ziren, ziur aski errausketa-labearen obretan. Eta, azkenik, 1942tik aurrera eritasunen ondorioz hil ziren 131 preso gotorlekuko hilerrian lurperatu zituzten, eta guztiz ongi identifikatuta eta kokatuta daude.

Aipatu dugun bezala, sei urtetan (1936-1942), 203 preso hil ziren eritasunen ondorioz, estatu frankistaren tutoretzapean zeudenean. Garai hartan Antsoaingo Zendea osatzen zuten herrietako hamabi hilerrietan lurperatu zituzten gizon horiek.

1942tik aurrera erabaki zen gotorlekuan bertan prestatutako hilerri batean lurperatzea eritasunen ondorioz (gehienetan pneumoniaz eta tuberkulosiz) hiltzen ziren presoak. 1945era arte 131 izan ziren hilerri horretako hilobi indibidualetan lurperatu zituzten pertsonak.

2008an, eta Gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabalitzen dituen eta horien aldeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 26ko 52/2007 Legean aurreikusten diren laguntzen ondorioz, hasiera eman zitzaion preso batzuen gorpuzkiak, familiek haien gorputzak erreklamatu bazituzten, hobitik ateratzeko lanei. Defentsa Ministerioak (lurren jabea baita) baimena eman ondoren, Aranzadi Zientzia Elkartek zuzendaritza teknikoa eginda, eta Txinparta elkartek eta Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkartek bultzatuta, 46 presoren gorpuzkiak hobitik atera eta familiei eman zitzaizkien.

Beraz, 85 familia egon daitezke oraindik beraien senideen gorpuzkiak aurkitzeko zain, baina jakin gabe guztiz ongi kokatuak daudela Nafarroako kartzela batean.

Estatuaren betebeharra, kasu honetan, ez da soilik biktimen eskubideak babesteko betebeharrak morala, arloko legedian jasotzen dena. Izan ere, lehen esan bezala, pertsona horiek ez ziren hil gerra zibilaren hasieran jardun ahal izan zuten inkontrolatuen banda batzuen ekintzaren ondorioz: Estatuaren zaintzapean zeudela hil ziren. Eta xehetasun hori garrantzitsua da desagerpenek dakarten kalte ikaragarri hori zuzentzeko behar diren mekanismo guztiak abiarazteko. Inork ez luke ulertuko, 85 familiari dolua amaitzeko laguntza emateko aukera egonda, Estatuak bere baliabide guztiak ez erabiltzea horretarako.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Espainiako Gobernuari eskatzea bere gain har dezala eritasunen ondorioz hil eta Alfontso XII.a gotorlekuko hilerrian lurperatutako 85 presoen senitartekoen bilaketa, eta bere gain har ditzala gorpuzkiak hobitik ateratzeko, DNAren analisiak egiteko eta, kasua bada, gorpuzkiak garraiatzeko gastuak.

2. Espainiako Gobernua premiatzea ekin diezaion, halaber, eritasunen ondorioz hil eta Antsoaingo Zendeako hamabi hilerrietan lurperatutako pertsonen familiak bilatzeari.

3. Nafarroako Gobernuari eskatzea beharrezkoa den prozedura berriro abiaraz dezan, gehienez ere hiru hilabeteko epean, Alfontso XII.a deitutako gotorlekua eta horren lurrak eskuratzeko, Defentsa Ministerioaren lagapenaren bidez.

4. Nafarroako Gobernua premiatzea lan-mahai bat eratu dadin Defentsa Ministerioaren, Nafarroako Gobernuaren, eskualdeko Udalen, oroimenaren arloko elkarten eta Europako erakundearen artean, asmoa izanik gotorlekuaren jabetza Nafarroari itzultzea eta lankidetzak eskaintzea plan bat zehazteari begira, hura mantentzeko eta eraikinerako zein ingurunerako aukerak bilatzeko, Iruñerriko Mankomunitatea gauzatzen ari den jarduketan osagarri gisa.

5. Espainiako Gobernuari exijitzea gotorlekuko hilerria, "botilen hilerria" deitzen dena, txukun dezan eta panel bat jar dezan, presoen heriotzaren inguruabarrei eta alderdi horretan lurperatu zituztenen datu pertsonalei buruzko argibideak emanen dituen.

Iruñean, 2016ko martxoaren 15ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegituren arloko baliabide berekiak optimizatzean oinarritutako egiturazko neurrien aldeko apustua egin dezan.

EH BILDU NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azpiegituren arloko baliabide berekiak optimizatzean oinarritutako egiturazko neurrien aldeko apustua egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Iragan martxoaren 1ean, Osasuneko kontseilari Domínguez jaunak agerraldia egin zuen, berak eskatuta, Osasun Batzordean, osasun arloko itxarote-zerrenden egoerari buruzko diagnostikoa azaltzeko, bai eta haiek kudeatzeko eta murrizteko estrategia ere.

Argi dago itxarote-zerrendak direla herritarren kezkarik handienetarikoa bat, herritarren osasunean eta ongizatean eragiten duten aldetik eta kasu askotan onartezina den antsietatea sortzen dutenez gero.

Arazoa ez da berria, urteak daramatzagu-eta hori herrestan eramaten. UPNren eta PSNren sostengua izan duten gobernuek hainbat estrategia baliatu dituzte itxarote-zerrendak direla-eta; baina, emaitzak ikusita, esan daiteke estrategia horiek ez direla eraginkorrak izan. Peonada deritzenak ezartzea, adibidez, oso garestia izan da, eta zenbait sektoreri mesede egin die, baina ez du balio izan argi eta garbi egiturazkoa eta faktore anitzekoa

den arazo bat konpontzeko, eta gainera “errebote-efektua” sortu du.

Egungo Nafarroako Gobernuak beste estrategia bat planteatu du, azpimarra jartzen duena epe motzeko, ertaineko eta luzeko neurrietan, eta helburu bikoitza duena: jada sortutako itxarote-zerrenda murriztea eta gehiegizko zerrendarik ez sortzea. Argi dago ezen, oro har, faktore erabakigarria ez dela hainbeste izan baliabide falta, ezpada baliabide horien kudeaketa, antolamendu eta optimizazio desegokia.

Bestalde, argi dago arazoa ez dela konpondu jardueraren areagotze hutsarekin, beharrezkoa baita azpimarra jartzea oinarritzko osasun laguntzak sistemaren ardatz gisa izan behar duen ebartz-ahalmenean, osasunaren sustapenean, itxarote-zerrenden leheneste egokian, aurrez aurre egindakoak ez diren interkontsulten sustapenean, oinarritzko osasun laguntzaren eta osasun laguntza espezializatuaren arteko koordinazioan edo gaixo kroniko eta multipatologikoen strategiaren garapen egokian, besteak beste.

Gobernuaren proposamena ezagututa, harago joan nahiko genuke hartu beharreko strategiaren gaineko konpromiso batzuetan, programa-akordioan ezarritako ildoari jarraikiz, eta azpimarra jarri sistema publikoarentzat negatiboak, eragingabeak eta garestiak direla frogatu den formulen ekiditean. Azkenik, gure ustez positiboa da itxarote-zerrendak direla-eta Gobernu honek eginen duen jarraipen estuagoa, eta horregatik eskatzen dugu informazio hori parlamentu-taldeen lanerako ere helaraztea, hura aztertu eta haren jarraipen egokia egin ahal izan dezagun.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehentasunezko apustua egin dezan baliabide berekien optimizatzean oinarritutako egiturazko neurrien alde; bai azpiegiturei eta ekipamenduei, bai giza baliabideei dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko Foru Legea alda dezan, halako moduan non itxaronaldiak prozesuei eta patologiei egokituko baitzaizkie, beste leheneste-sistema bat ezarri;

eta lehen kontsultez eta kirurgia-operazioez gain aurrerantzeko kontsultak edo azterketa medikoak sartuko baitira.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuia egiten duela peonada deritzen bidez profesionalen lanaldia ohiko lanalditik kanpo luzatzea, salbu eta egoera oso zehatz eta salbuespenezkoetan, beste modu batera konpondu ezin direnak. Halaber, Nafarroako Gobernuak premia-tzen du beharrezkoak diren neurriak har ditzan horien ezarpena ekiditeko. Horrek esan nahi du langileen kudeaketari buruzko neurriak hartu behar direla Funtzio Publikoarekin batera, sindikatuekin alde zuzenetik hitz egin eta adostuta, zertarako eta:

a. Ohiko lanaldian goizeko eta arratsaldeko txandak ezartzeko, kontsulta eta kirurgia zerbitzuetan.

b. Kontratazio-baldintza duinak bermatzeko, profesionalak kontratatu eta fidelizatzea ahalbidetuko dutenak, bereziki eskualde-ospitaleetan.

c. Zerbitzuak zentro ezberdinen artean berrantolatatu ahal izateko, zenbait espezialitate eta zerbitzuetako beharrezko erantzute aldera.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du, arestian esandakoa dela-eta, xeheki azter ditzan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren organigrama eta plantilla, epe motzeko, ertaineko eta luzeko gabeziak detektatzeko, estamentuz estamentu eta zerbitzuz zerbitzu, langile arloko beharrezko guztiak zehaztuz eta beharrezko horiei erantzuteko beharrezkoak diren lan-eskaintza publikoak planifikatuz.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du zentro pribatuetarako desbideratzeak muga ditzan haiek behar-beharrezkoak diren kasu eta egoeretara, zerbitzua baliabide berekien bidez ematea ezinezkoa denekoetara, baliabide publikoak optimizatze bidez guztiak agortu ostean.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeko kideei hileroko helaraz diezaien itxarote-zerrenden jarraipen-txosten xehakatu bat, espezialitatez espezialitate eta muntako datuak jasotzen dituen, bai eta jada ezarrita dauden eta ezarritik doazen neurrien inaktuaren analisia ere.

Iruñean, 2016ko martxoaren 15ean

Eleduna: Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premia-tzen da neurri eraginkorrak har ditzan, etxeko langile gisa lan egiten duten pertsonak abusuzko jardunbideetatik babesteko.

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita neurri eraginkorrak har ditzan, etxeko langile gisa lan egiten duten pertsonak abusuzko jardunbideetatik babesteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-teak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritako-aren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2011. urtean PSOEn Gobernuak lehenbiziko legea atera zuen etxeko langile emakumeak ezku-tuko ekonomiatik ateratzeko asmoz. Urrats garran-tzitsua izan zen, baina ez zuen bere helburua bete.

Urtebetea besterik iragan ez zenean, eta Alder-di Popularra Estatuko Gobernuan zelarrik, aldaketa batzuk egin ziren, atzerapen bat ekarri zutenak emakume langile horien lan eskubideetan, bereziki beraien lanaldia asteko hirurogei orduetara iristen ez bazen alta emateko zuten betebeharrari zego-kionez.

Emakume langile horiek, gaur egun, araubide berezi batean kotizatzen dute, langabeziako pres-taziorako eskubiderik gabe, lan-hitzarmenerako aukerarik gabe, eta zailtasun handiak izanik aldi baterako ezintasun prozesuetan.

Badaude hainbat datu, emakume horietako askok, bereziki barne langileek, pairatzen duten esplotazio eta babesgabetasun egoera erakusten dutenak. Egoera are larriagoa da emakumeak egoera irregularrean daudenean. Haietako askok oso baldintza prekarioetan egiten dute lan: soldata txikiak, lanpostuko eginkizunen zehaztugabetasuna, lanaldi eta ordutegi malguak eta luzagarriak, edo lansaririk gabeko egiteko bereziak, horiek

guztiak ezaugarri oso ohikoak dira lanpostu horie-tan.

Kalkulatzen denez, Nafarroan 9.000 dira Gizar-te Segurantzari alta eman gabe dauden etxeko langile emakumeak.

Funtsezkoa da etxeko lanaren errealitatea eta langile horien eginkizun soziala ikusaraztea, eta, halaber, haien lan eta enplegu baldintzak hobetzea.

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua premiatzen du neurri eraginkorrek har ditzan, etxeko langile gisa lan egiten duten pertsonak abusuzko jardunbideetatik babesteko, eta meka-nismoak eta prozedurak ezar ditzan kontratuak, kexak, abusuak eta iruzurrezko jardunbideak ikuskatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua eta Espainiako Gobernuak premiatzen ditu Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hit-zarmena, etxeko langileei buruzkoa, berrets dezan, eta, hortaz, haren aplikazioa eta garapena ere bai, dagozkien eskumenen esparruetan.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gober-nua premiatzen du lan arloko legeria alda dezan, etxeko langileen araubidea araubide orokorrekarekin parekatzeko.

Iruñean, 2016ko martxoaren 16an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren aldez aurreko izapide guztiak egin ditzan Sunbillan ikastetxe publiko berri bat eraikitzeko.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, PODEMOS-AHAL DUGU ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEEK ETA NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeek eta Nafarroako Alderdi Popularreko eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren aldez aurreko izapide guztiak egin ditzan Sunbillan ikastetxe publiko berri bat eraikitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak 2016ko martxoaren 11n Sunbillako eskola publikora egindako bisitan, hara joandako parlamentu-talde guztien ordezkariak ikusi ahal izan genuen ikastetxe horrek, arrazoiak arrazoi, gabezia nabarmenak dituela eta ez dituela betetzen ikastetxe batek behar dituen gutxienezko segurtasun eta osasungarritasun baldintzak.

Ikastetxea bi eraikin zaharretan banaturik dago, eta eraikin horiek ez ziren eskola izateko taxutu; ondorioz, egiturazko gabeziak ditu, espa-

zioak ez dira behar adinakoak, eta dauden horiek nabarmen narriatuta daude; osasun-azpiegiturak zaharkituta daude; sarbideak ezegokiak dira; eskailerak, estuak eta pikoak... Ikastetxearen taxutze horren eraginez, ezinezkoa da behar bezalako arreta ematea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei, eta horrez gain, Haur Hezkuntzako umeei solairu batetik bestera joaten ibili behar izaten dute etengabe. Horri gehitzen badiogu eraikin batetik bestera 250 metro daudela –horrek nabarmen eragozten du hezkuntza-lana bera nahiz irakasleen arteko koordinazioa, bi eraikinen artean joan-etorrian ibili behar baitute aldiro–, Sunbillako ikastetxe publikoaren irtenbide erreal eta bideragarri bakarra da ikastetxe berri bat eraikitzea.

Sunbillan eskola berri bat eraikitzeko eskaera, bisitan eskuratu zitzaigun memorian behar bezala justifikatua, ez da berria. Azken bi legegintzaldi hauetako gobernuek beharizan hori onartu zuten hasiera batean, baina ez zuten konponbidea gauzatzeko egin beharreko urratsik egin. Bitartean, Sunbillako Udala diru asko inbertitzen ari da bi eraikinetan adabakiak jartzen, baina arazoari behin betiko erantzun bat, duina eta integrala, ematera iritsi ahal izan gabe.

Horregatik guztiagatik, uste dugu iritsia dela Sunbillako ikastetxe publikoko hezkuntza erkidegoaren eskariari erantzun bat emateko unea, eta honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala has ditzan Nafarroako Sunbillako herrian ikastetxe publiko berri bat eraikitzeko beharrezkoak diren aldez aurreko izapide guztiak.

Iruñean, 2016ko martxoaren 17an

Foru parlamentariak: Koldo Martínez Urionabarrenetxea, Miren Aranoa Astigarraga, Fátima Andreo Vázquez, Ainhoa Unzu Gárate, Javier García Jiménez, José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioak direla-eta Legebiltzarraren Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak bete ditzan.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeen eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioak direla-eta Legebiltzarraren Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak bete ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Denok dakigunez, Espainiako Konstituzioaren 16.3 artikulua jasotzen duen Estatuaren akonfessionaltasuna urruti dago Elizaren eta Estatuaren artean benetako bereizketa lortzetik, hala erakunde jardunean, nola arauak ematean edo botere publikoek herrialdean elkarrekin bizi diren erlijioei eskaintzen dieten trataeran.

Eliza Katolikoak fabore-tratua jasotzen du oraindik, gainerako erlijio eta gizarte-erakundeekin alderatuta, hainbat kontutan, esate baterako, zergen ordainketan edo diru-sarrera publikoen esleipenean. Baina badago gai bat, Nafarroan bereziki mingarria eta bidegabea izan dena, alegia, jabari publikoko ondasun higiezinak Eliza Katolikoaren alde inmatriculatzea, elizaren hierarkia Estatu funtzionarioekin eta agintari publikoekin parekatzen duen prozedura baten bidez.

Diktadura frankistan, jadanik, Hipoteka Legearen 206. artikulua Eliza Katolikoa Estatuarekin berarekin parekatzen zuen, apezpiku baten ziurtaginaren bidez. Horrek ondasunak inmatriculatzeko fede-emaile publikoaren eginkizunak gauzatzeko zituela. Baina diktaduran bertan ere espresuki salbuetsi ziren inmatriculaziotik "gurtza katolikorako tenpluak".

Salbuespen hori Alderdi Popularraren lehen gobernuak kendu zuen, José María Aznarren agindupean, eta Eliza ahaldundu zuen gurtzarako tenpluak ere inmatriculatzeko. Tenplu horiek, hainbatetan eta hainbatetan, herri edo hiri bakoitzeko biztanleek eraiki eta mantendu zituzten, eta jende horri bere ondasun bat ebaste ziztaion, hierarkia katolikoaren eta Elizaren ondarearen mesederako.

2007an ezagutu zen, ia kasualitatez, lege eta arau egoera horretaz baliatuta Iruñeko eta Tuterako elizbarrutiek inmatriculatu zituztela zenbat eta 1.087 ondasun higiezin 1998tik 2007. urtera bitartean, eta horietako % 78 gurtzarako lekuak omen ziren.

Eskandalu erraldoia dugu hau, eta kontzientzian min egiten die Estatu akonfessionaltasun bat ezarri zela era iozoan sinetsi zutenei. Kontua da erakunde pribatu batek, alegia, Eliza Katolikoak gure erkidegoaren ondare materiala eta ez-materiala ebatsi duela. Historian zehar Espainian bizitza politikoa eta soziala markatu duen erakunde baten boterearen aurrean jendearen borroka altxatzen da, duten ondarearen alde, herrien eta tokien kulturaren alde, gaur lapurtu diren tenpluak eraiki zituen auzolanaren alde.

Eta, iraina areagotzeko, erakunde horrek ausartitate faltsu batez eta "pobretasun-botoez" harro agertu nahi duen bitartean gero eta aberastasun material gehiago metatzen du.

Egoera hori arbuiagarria da hainbat arrazoi sozial, juridiko eta etikorengatik:

– Ikuspegi sozialetik, aski delako gure herri eta hirien irakurketa historikoa egitea, udaletako eta parrokiatako artxiboetan zein notarialetan dagoen dokumentazio oparoan, egiaztatzeko ondasun horiek direla era komunitarioan kokatuta dauden herrien jabetzakoak.

– Ikuspegi juridikotik, baliatu delako lege frankista bat, abusuzkoa, demokraziaren aurrekoa eta konstituzio-kontrakoa, komunitateari kentzeko zilegitasunez berea zena.

– Azkenik, ikuspegi etikotik, eliztarrak berak ere lotsarazten ditu beraien gurtza-ministroen gutiziazko jokabide horrek.

Egoera hori dela eta, Nafarroako Parlamentua ezin da geratu ezer egin gabe. 2015. urtean legezko aukera hori deuseztatzeak ez die ahalbidetzen udalerriei Eliza Katolikoak ebatsitako ondasunhigiezinak berreskuratzea bertako jendearentzat. Horregatik, justiziaren arabera da erakunde honek iritzia ematea eta behar diren erabakiak hartzea aipatu ondasunak herriarentzat berreskuratzea posiblea izan dadin.

2008ko apirilaren 24an Plataformak lehenbiziko agerraldia egin zuen Nafarroako Parlamentuko Lehendakartzako Batzordean, eta bertan aldarrikapen batzuk aurkeztu zituen. Horietako baten arioren, 1998tik 2007ra bitartean inmatriculatutako 1.087 ondasuni buruzko informazioa jaso zen.

2012ko ekainaren 14ko Osoko Bilkuran, Nafarroako Parlamentuak ebazpen bat onetsi zuen, zeinetan Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen Eliza Katolikoak eginiko immatriculazioek ukitutako ondare osoaren inbentarioa egin dezan, ondare horren defentsa juridikoa egin dezan eta Hipoteka Legearen 206. artikulua konstituzio-kontrakotasunaren adierazpena sustatu dezan.

2016ko urtarrilaren 13an Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformak beste agerraldi bat egin zuen Nafarroako Parlamentuko Lehendakartzako Batzordean. Bilkuran zeuden parlamentutalde guztiek aldeko harrera egin zioten Plataformaren proposamenari, oro har.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, Osoko Bilkurak 2012ko ekainaren 15ean onetsitako ebazpena, 1. eta 3. puntuetan, bete dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Justizia Ministerioaren aldetik

jaso ditzan Eliza Katolikoak Nafarroan, 1946tik gaur egun arte, egin dituen inmatriculazio guztiak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, Iruñeko eta Tuterako elizbarrutiei eska diezaien inmatriculatutako ondasunak itzultzeko. Ondasun horiek erregistratzeko gogoari eusten badiote, banan-banan eginen dute, era publiko eta nabarian, ondasun horien gainean hirugarrenek izan ditzaketan eskubideak babesteko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, Eliza Katolikoak inmatriculatutako ondasunak berreskuratzen ez diren, ondasun horiek mantentzera eta zaintzera bideratutako politika instituzional oro baloratua eta berrikusia izan dadin ukitutako herrien interesen, ondasun horien berreskurapenaren eta nafar ondare komunen segurtasunaren arabera.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, Nafarroako toki entitateek edo zilegi duen gainerako edonork eskaturik abiarazten diren prozedura judicial guztietan ager dadin, xedea denean Eliza Katolikoak inmatriculatutako ondasun higiezinak berreskuratzea.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, informa dezan Nafarroako elizbarrutiek 1979tik 2015era bitartean pribatizatu dituzten ondasun guztiak -higigarriak zein higiezinak- mantentzeko eta konpontzeko esleitu diren kontusail instituzional guztien zenbatekoei eta xedeei buruz.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, abiaraz ditzan aldatutako artikuluen (Hipoteka Legearen 206. artikulua eta Hipoteka Erregelamenduaren 5. artikulua) konstituzio-kontrakotasuna aldarrikatzeko izapideak, erregistroko amnistia ekiditeari eta inmatriculatutako ondasunak berreskuratzeari begira.

Iruñean, 2016ko martxoaren 15ean

Foru parlamentariak: Koldo Martínez Urionabarrenetxea, Adolfo Araiz Flamarique, Laura Pérez Ruano eta José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da datu-base bakarria sor dezan, Nafarroako ezein administrazio edo entitate publikok eskain dezakeen enplegu-eskaintza eta -eskari guztia bilduko duena.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita datu-base bakarria sor dezan, Nafarroako ezein administrazio edo entitate publikok eskain dezakeen enplegu-eskaintza eta -eskari guztia bilduko duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldea, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Enplegu Zerbitzua Nafarroako Foru Komunitatean garatzen diren enplegu politika aktiboak kudeatzeko tresna da. Bere jarduna apirilaren 29ko 148/1998 Foru Dekretuak Nafarroako Enplegu Zerbitzua Erakunde Autonomoa sortu eta haren estatutuak onetsi ondoren hasi zuen. Aipatu dokumentuak, lehen lerrokadan, honako xedea aipatzen du: "Langabeziaren arazoak gizartean duen geroz eta hedapen handiagoak, batetik, eta gai horrek Nafarroako Gobernuan eragiten duen etengabeko ardurak, bestetik, enplegua suspertzeko programen kudeaketan emaitza positiboak lortzen lagunduko duten antolaketa-neurriak hartzea plantearazi dute, langabeziaren aurkako borroka eraginkorraren eta enpleguaren sustapenaren arloko politikari dagokionez." Gaur egun, erakunde autonomo hori sortu eta hemezortzi urte iragan ondoren, xedea inoiz baino zentzudunagoa da, haren eginkizuna estrategikoa dela ulertuta.

Antolamendu-neurrien bidez emaitza positiboak lortzeko asmoz, funtsezko bi faktore hartu behar dira kontuan metodoen eguneratzean eta enpleguaren eta profesionalen eskaeran. Alde batetik, enplegua bilatzeko tresnak eta, beraz, lanpostu hutsak eskura jartzekoak, aukera hori, gehienetan, euskarri digitalen bidez erabiltzen baita. Beste alde batetik, oso aldakorrek diren behar berrietara egokitzen da profilen eskaera, etengabeko jarraipena eskatzen baitute, eskaintzaren kudeatzaileek eta eskaeraren administrazioaileek elkarrekin gainbegiratuta.

Konplexua ez bada ere, puntu bakar batean bateratu behar da eskura dagoen informazio guztia, eta halako moduan antolatu behar da non eskatzaileari ahal den guztia erraztuko baitizkio bilaketa zein sarbidea. Puntu digital bakarria, enplegu eskaintza guztiak, nondik datozen kontuan hartu gabe, eta eskatzaile guztiak elkartuko dituen. Baina hori ez ezik, informazioa elikatze gune bat ere izan behar da, bertan enpresek era aktiboan informa dezaten ezagutzaren arloan etorkizunean izan ditzaketen beharrei buruz, eta modu horretan prestakuntza-ikastaroen zerrenda eratu ahal izateko Nafarroan edukiko dugun lan goeraren arabera.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Datu-base bakarria sor dezan, Nafarroako ezein administrazio edo entitate publikok eskain dezakeen enplegu-eskaintza eta -eskari guztia bilduko duena, eta sektore pribatutik eta beste entitate eta erakunde batzuetatik –atariak barne– datozenak sartzeko borondatearekin. Hartara, eremu digital bat sortuko da, bistaratze eta elikatzeko erabilgarrirako eremu digital bat sortuko da, eta gainera euskarri guztietara egokitua eta eduki berrerabilgarriarekin.

2. Eskaera errealari zein etorkizunekoari buruzko informazio eskuragarri guztia jaso dezan, Nafarroako Foru Komunitateko enplegarritasun beharri aurrea hartzeko. Horretarako etengabe bilduko ditu eskaintzan inplikaturako eragileen iradokizunak eta errealitatea aztertuko du big data

analisien bidez, eskura dauden iturri askotatik jasotako datuen arabera.

3. Bere prestakuntza-eskaintza egokitu eta batu dezan, mozio honen 1. eta 2. puntuetatik

abiatuta sortuko diren tresnen bidez aterako den informazioa oinarri.

Iruñean, 2016ko martxoaren 17an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hitzarmena eta etxeko langileen lan duinari buruzko 201. Gomendioa berrets ditzan.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hitzarmena eta etxeko langileen lan duinari buruzko 201. Gomendioa berrets ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2013ko irailaren 5ean indarrean sartu zen LNE-Lanaren Nazioarteko Erakundearen hitzarmen historikoa, mundu osoko etxeko langileei oinarritzko lan-eskubideak onartzen dizkiena. Gaurko egunean, hitzarmen hori hamazazpi herrialdetan dago indarrean: Alemania, Argentina, Bolivia, Kolonbia, Costa Rica, Ekuador, Filipinak, Finlandia, Guyana, Irlanda, Italia, Maurizio, Nikaragua, Paraguai, Hegoafrika, Suitza eta Uruguai. Aurten, 2016an, beste bost herrialdetan sartuko

da indarrean: Belgika, Txile, Dominikar Errepublika, Panama eta Portugal. .

Espainiako Gobernuak, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Batzordearen 2013ko maiatzaren 8ko bilkuran, aho batez onetsi zuen transakzio-zuzenketa bat, LNEren 189. Hitzarmena eta etxeko langileen lan duinari buruzko 201. Gomendioa berresteari buruzko legez besteko proposamenari egindakoa.

Parlamentuan hartutako konpromisoa konpromiso, oraindik ere ez da berrespena Kongresura eramanez, etxeko langileak hartara gainerako sektoreetako langileak baino egoera okerragoan utzita.

Ulertezina da Gobernuak ez berrestea etxeko zerbitzuaren lana duintzea xede duen hitzarmen bat, non eta ez duen atzera egin nahi sektore horretako eskubideen aitortzan, zeinak 427.000 pertsonari ematen baitie lana Estatuan, Estatistikako Institutu Nazionalaren 2015eko abenduko datuen arabera, gehien-gehienak emakumeak. Hori guztia, sektore horretan dagoen ezkutuko ekonomia kontuan hartu gabe.

Denbora honetan zehar, Estatuko erakundeak axolagabekeriak eta interes faltak ahalbideratu dute (lan erreformarekin batera) lan-eskubideetan atzera egitea, eta sistematikoki eragotzi dute eskubide horiek hedatzea sektore zeharo prekari-zatu batean, beste jarduera ekonomiko batzuek duten babesik eta estaldura sozialik gabe eta ezkutuko ekonomia tasa oso handia daukana.

Lan horrek emakume-aurpegia du –emakumeak dira %83–, eta gehienak etorkinak dira. Soilik % 9k dauka gainontzeko langileek daukaten lege-estaldura bera; beste guztiek ez daukate ordainsari edo atsedenaldira arauturik, eta langile horien ordainsari eta lan baldintzak gure herrialdeko makurrenak dira: langabezia-sarirako eskubiderik gabe, erretiro aurreratua hartzeko aukerarik gabe

edo 55 urtetik goitiko langabetuentzako laguntzak eta prestazioak jasotzeko aukerarik gabe, eta mota guztietako abusuak pairatzen dituzte, baita sexu-abusuak ere.

Azkenik gogorarazi beharra dago hitzarmena sinatu izana, konpromiso formal bat izateaz gain –hartara, legeak egin behar dira xedapen guztiak eragingarri bihurtzeko, eta LNEri aldiro informatu behar zaio hartutako neurriei dagokienez–, elkartasun-konpromiso bat ere badela; izan ere, zenbat

eta herrialde gehiagok berretsi, orduan eta handiagoa izanen da bere ezarpena.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari prestatzen duen luzamendurik gabe berrets ditzan LNE-Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hitzarmena eta etxeko langileen lan duinari buruzko 201. Gomendioa.

Iruñean, 2016ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Adierazpen instituzionala, LOMCEren, unibertsitateko tasen eta unibertsitateko sexismoaren aurka martxoaren 17an egindako mobilizazio-jardunaldian gertatutako indarkeria eta hertsapen ekintzak arbuia-tzekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere arbuiorik erabatekoena adierazten du atzo NUPeko instalazioetan hasi eta Iruñeko Alde Zaharrean jarraitu zuten indarkeria eta hertsapen ekintzak direla eta.”

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu iragan martxoaren 17ko mobilizazioen ondotik Iruñeko kaleetan izandako indarkeria.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“– Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du iragan martxoaren 17ko mobilizazioen ondotik Iruñeko kaleetan izandako indarkeria.

– Parlamentuak bere kezka adierazten du kale borrokaren gorakada dela eta.

– Nafarroako Parlamentuak indar politiko guztiei exijitzen die ez diezaieten eman babes politikorik, ez bestelakorik ere, indarkeria-adierazpen horiei”

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu manifestarien gutxiengo batek iragan martxoaren 17an, ostegunez, udaletxearen, Udaltzaingoaren ondasunen eta hiri altzarien aurka egindako eraso, bai eta dende pairatutakoa ere.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Arbuiatu egiten du manifestarien gutxiengo batek iragan martxoaren 17an, ostegunez, udaletxearen, Udaltzaingoaren ondasunen eta hiri altzarien aurka egindako eraso, bai eta dende pairatutakoa ere.

2. Arbuioa arbuio, bere errespetua erakusten die egun horretan milaka ikaslek beren ikaste-

txeetan eta mobilizazioetan zilegitasunez egindako eskariei eta erreibindikazioei, eta Nafarroan indarrean den hezkuntza eredu hobetzeko hartu beharreko neurriak aztertzeko konpromisoa hartzen du; izan ere, indarkeriazko ekintza horiek ezin dituzte erreibindikazio horiek ezkutatu”

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Tuterako eskola publikoetan bi lerro ixteari buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Tuterako eskola publikoetan bi lerro ixteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Tuterako eskola publikoetan bi lerro itxiko direla iragarri ondoren –hartara, irakaskuntza itunduak sei lerro izanen ditu, eta publikoak, berriz, zazpi, honako hau jakin nahi dut: zergatik ez da aztertu, baldin eta itxiera beharrezkoa bada, lerro horiek irakaskuntza itundutik kentzea, programa-akordioarekiko koherentzia?

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Galdera, IdiSNA-Nafarroako Osasun Ikerkuntzako Institutuaren Patronatuari buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, IdiSNA-Nafarroako Osasun Ikerkuntzako Institutuaren Patronatuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

1. NUPEk zergatik jarraitzen du ordezkariarik izan gabe IDISNA-Nafarroako Osasun Ikerkuntzako Institutuaren patronatuan?

2. Podemos-Ahal Duguk honako hau eskatu zuen 2015eko abenduaren 17ko Osoko Bilkuran egindako galdera batean: a) Patronatuko lehendakariak –Osasun Departamentuaren titularrak– kali-

tatezko botoa baliatzea, ekidite aldera erakunde pribatu batek Nafarroako Gobernuaren helburu estrategikoen eta programa zientifikoen gaineko betoa ezartzea; b) Patronatuko lehendakariak izendatzea zuzendari zientifikoa, Osasunbidea-NOZeko Ikerkuntza Batzordeak proposatutako hirukote batetik, eta ez orain egiten den bezala, Nafarroako Unibertsitateko errektoreak izendatzen baitu; eta c) Alderdi pribatuaren eta publikoaren arteko zuzendaritza parekidea arlo zientifikoetan, gaur egun gertatzen den anomalia zuzentze aldera; izan ere, alderdi publikoa 9 arlo zientifikoetarik 3tan bakarrik da buru. Zertan dira eskari horiek guztiak?

3. Patronatua osatzen duten hamahiru pertsonetatik bat bakarrik da emakumea. Zer irizpide

baliatu dira patronatuko kide berrien izendapen-proposamena –zeina orain dela gutxi egin baita– egiteko?

4. Osasun Departamentuak zer taxuketa dabil gogoan Nafarroan osasun-ikerkuntza publikoa datozen hamar urteotan sustatzeko plan zientifiko eta ekonomiko bat –Oinarrizko Osasun Laguntza, Laguntza Espezializatua, Osasun Mentala eta Osasun Publikoaren Institutua barne hartuko dituen eta NUP ere sartzea aurreikusiko duena– prestatze aldera?

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Galdera, SICAVen egoitza fiskala aldatzeak foru erkidegoaren funtsei begira ekarriko duen kostuari buruzkoa.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako galdera, SICAVen egoitza fiskala aldatzeak foru erkidegoaren funtsei begira ekarriko duen kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak batzordean ahoz erantzun dezan:

Hainbat hedabidetan argitaratu denez, egoitza Nafarroan daukaten SICAV gehienak hasi dira beren egoitza fiskala aldatzeko izapideak egiten; halatan, zergak Nafarroan ordaintzeari utziko lio-kete.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuari honako hau galdetzen diogu:

Sozietate horiek hartutako neurri horrek zer kostu ekarriko die foru erkidegoaren funtsei?

Iruñean, 2016ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Galdera, 2015eko azken sei hilekoan enpresa berriak ezartzeari eta Nafarroako enpresak deslokalizatzeari buruzko datuak direla-eta egiten den balorazioaren gainekoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, 2015eko azken sei hilekoan enpresa berriak ezartzeari eta Nafarroako enpresak deslokalizatzeari buruzko datuak direla-eta egiten den balorazioaren gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Garapen Ekonomikorako lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu 2015eko azken sei hilekoan enpresa berriak ezartzeari eta Nafarroako enpresak deslokalizatzeari buruzko datuak direla eta?

Iruñean, 2016ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroako Gobernuko departamentuek edo haren menpeko erakunde autonomoek lizitatu edo/eta esleitutako kontratuei eta Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeko 49. artikuluan jasotako klausulei buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuko departamentuek edo haren menpeko erakunde autonomoek lizitatu edo/eta esleitutako kontratuei eta Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeko 49. artikuluan jasotako klausulei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Azken legegintzaldian eta honetatik igaro den aldian, Nafarroako Gobernuko departamentuek edo haren menpeko erakunde autonomoek lizitatu edo/eta esleitutako zenbat kontratutan jaso dira baldintza administratiboen agirietan, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeko 49. artikuluan jasotako klausulak? Zeinetan? Zer klausula ezarri dira zehazki? Zer jarraipen egin da?

Iruñean, 2016ko martxoaren 16an

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen finantzaketari buruzkoa.

JOKIN CASTIELLA IMAZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jokin Castiella Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen finantzaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Jokin Castiellak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilari Mikel Aranburuk Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak orain dela gutxi zioen merkatuek konfiantza daukatela Nafarroaren finantza-kudeaketari dagokionez; izan ere, Standard & Poors-en arabera, gehien eusten dion erkidegoa da Euskal Autonomia Erkidegoarekin batera ("A egonkorra" 2015ean). Orobat azpimarratzen zuen Foru Komunitatearen likidezia, hornitzaileei beste

inork baino lehenago –eta gainera, epean– ordaintzen diena.

Halere, Nafarroaren zorra 3.320 milioi eurokoa izateraino handitu da azken urteotan; hau da, bere BPGaren % 18,2koa.

Nafarroako Foru Komunitatearen gaur egungo finantza-beharrizanak 484 milioi eurokoak direla zenbatesten da. Beharizan horiek % 1,59ko batez besteko interes-tasarekin bete dira, eta finantza-operazioen batez besteko biritza 9,5 urtekoa da.

Finantza-zenbateko osotik, lehendik zeuden operazioak birfinantzatzera bideratu dira 70 milioi euro, zorraren zorroko interes-zama merkatze aldera, eta horri esker lortu dira egungoak baino batez besteko interes-tasa hobeagoak, 20 milioi euroko aurrezpena ekarriko dutenak mailegu horien indarraldian zehar.

Hori dela-eta, ondoko galderak aurkeztu ditugu:

– Departamentuak zer balorazio egiten du finantza-operazio horri buruz?

– Departamentuak zer estimazio egiten du operazio horrek nahiz azken erreforma fiskalak 2016rako defizit-helburua dela-eta izanen duten eraginari buruz?

– Departamentuak zer egutegi darabil gogoan Nafarroaren egungo zorra murrizteari begira?

Iruñean, 2016ko martxoaren 16an

Foru parlamentaria: Jokin Castiella Imaz

Galdera, desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-zentroetako lan-gatazkari buruzkoa.

MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztutako galdera, desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-zentroetako lan-gatazkari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernandez de Garaialde y Lazkano Sala andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan dira desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-zentroetako lan-gatazka konpontzeko negoziazioak? Departamentuak zer proposatzen du zehazki?

Iruñean, 2016ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano Sala

Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan martxoaren 17an izandako istiluei buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan martxoaren 17an izandako istiluei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko

Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Martxoaren 17an, Ikasle Abertzaleak sindikatua deitutako ikasleen greba baten karietara, bazter-nahasle batzuek istiluak eragin zituzten Nafarroako Unibertsitate Publikoan, ikasleei, langileei eta irakasleei ikasgeletara sartzea eragozten eta ikaratzen saiatu zirelarik.

– Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du istilu horiei buruz?

– Nafarroan bizikidetasunari mesede egiten diotela uste duzue?

– Errektoreari eskatuko al diozue neurriak har ditzan, etorkizunean gisa horretako egoerarik ez gertatzeko?

Iruñean, 2016ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, Gendulaingo UPSko hirigintza esparruko 1., 2. eta 3. exekuzio-unitateak birzatzitzeko proiektuen izapidetzeari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, Gendulaingo UPSko hirigintza esparruko 1., 2. eta 3. exekuzio-unitateak birzatzitzeko proiektuen izapidetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen

dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Iragan legegintzaldian, hasiera batez onetsi eta jendaurrean paratu ziren Gendulaingo UPSko hirigintza esparruko 1., 2. eta 3. exekuzio-unitateak birzatzitzeko proiektuak.

Zortzi hilabete joan dira, eta ez dugu enpresa askori –besteak beste, Nasuvinsari, zeina foru titulartasunekoa baita– eragiten dieten izapide horiek izandako aurrerabidearen berri.

Espedienteak ebazteko ezohiko atzerapen hori ikusita, honako galdera hau onartu eta izapidetzea eskatzen dut, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Zertan dira izapide horiek?
- Zeri zor zaio atzerapen hori?
- Noizko aurreikusten da bukatzea?

Iruñean, 2016ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Iruñeko Ermitagaña ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Iruñeko Ermitagaña ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

2016-2017 ikasturterako berriki izandako aurreinskripzio-epearen ondoren, jakin da Iruñeko Ermitagaña ikastetxe publikoaren kasu zehatzean zenbait ikasle hiru urtekoen ikasgelarik gabe geratu direla Ingelesez Ikasteko Programan.

Aurreko ikasturteetan esleiturik zeukan lerrokopurua murriztu zaio ikastetzeari. Oso kontuan hartu behar da aparteko aurreinskripzio-epean eta

ikasturtean zehar matrikulazioen areagotzea gertatzen ari dela.

Hori dela eta, honako hau galdetzen diot Hezkuntza Departamentuari:

Hezkuntza Departamentuak aurreikusten al du Iruñeko Ermitagaña ikastetxe publikoan Ingelese

Ikasteko Programaren eskaintza gehitzea eta ikasleen eskaria estaltzea?

Corellan, 2016ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Iruñeko José María Huarte ikastetxe publikoan Ingelese **ko Programa eskaintzeari buruzkoa.**

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Iruñeko José María Huarte ikastetxe publikoan Ingelese ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Errege-

lamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

2016-2017 ikasturterako berriki izandako aurreinskripzio-epearen ondoren, jakin da Iruñeko José María Huarte ikastetxe publikoaren kasu zehatzean zenbait ikasle hiru urtekoen ikasgelarik gabe geratu direla Ingelese ikasteko Programan.

Aurreko ikasturteetan esleiturik zeukan lerrokopurua murriztu zaio ikastetxeari. Oso kontuan hartu behar da aparteko aurreinskripzio-epean eta ikasturtean zehar matrikulazioen areagotzea gertatzen ari dela.

Hori dela eta, honako hau galdetzen diot Hezkuntza Departamentuari:

Hezkuntza Departamentuak aurreikusten al du Iruñeko José María Huarte ikastetxe publikoan Ingelese ikasteko Programaren eskaintza gehitzea eta ikasleen eskaria estaltzea?

Corellan, 2016ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Zizurko Camino de Santiago ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Zizurko Camino de Santiago ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Errege-

lamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

2016-2017 ikasturterako berriki izandako aurreinskripzio-epearen ondoren, jakin da Zizurko Camino de Santiago ikastetxe publikoaren kasu zehatzean zenbait ikasle hiru urtekoen ikasgelarik gabe geratu direla Ingelesez Ikasteko Programan.

Aurreko ikasturteetan esleiturik zeukan lerrokopurua murriztu zaio ikastetxeari. Oso kontuan hartu behar da aparteko aurreinskripzio-epean eta ikasturtean zehar matrikulazioen areagotzea gertatzen ari dela.

Hori dela eta, honako hau galdetzen diot Hezkuntza Departamentuari:

Hezkuntza Departamentuak aurreikusten al du Zizurko Camino de Santiago ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programaren eskaintza gehitzea eta ikasleen eskaria estaltzea?

Corellan, 2016ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Berriozarko Mendialdea I ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Berriozarko Mendialdea I ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

2016-2017 ikasturterako berriki izandako aurreinskripzio-epearen ondoren, jakin da Berriozarko Mendialdea I ikastetxe publikoaren kasu zehatzean zenbait ikasle hiru urtekoen ikasgelarik gabe geratu direla Ingelesez Ikasteko Programan.

Aurreko ikasturteetan esleiturik zeukan lerrokopurua murriztu zaio ikastetxeari. Oso kontuan hartu behar da aparteko aurreinskripzio-epean eta

ikasturtean zehar matrikulazioen areagotzea gertatzen ari dela.

Hori dela eta, honako hau galdetzen diot Hezkuntza Departamentuari:

Hezkuntza Departamentuak aurreikusten al du Berriozarko Mendialdea I ikastetxe publikoan Inge-

leseiz Ikasteko Programaren eskaintza gehitzea eta ikasleen eskaria estaltzea?

Corellan, 2016ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan Ingeleseiz Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan Ingeleseiz Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Errege-

lamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

2016-2017 ikasturterako berriki izandako aurreinskripzio-epearen ondoren, jakin da Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoaren kasu zehatzean zenbait ikasle hiru urtekoen ikasgelarik gabe geratu direla Ingeleseiz Ikasteko Programan.

Aurreko ikasturteetan esleiturik zeukan lerrokopurua murriztu zaio ikastetxeari. Oso kontuan hartu behar da aparteko aurreinskripzio-epean eta ikasturtean zehar matrikulazioen areagotzea gertatzen ari dela.

Hori dela eta, honako hau galdetzen diot Hezkuntza Departamentuari:

Hezkuntza Departamentuak aurreikusten al du Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan Ingeleseiz Ikasteko Programaren eskaintza gehitzea eta ikasleen eskaria estaltzea?

Corellan, 2016ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentualdeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Errege-

lamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

2016-2017 ikasturterako berriki izandako aurreinskripzio-epearen ondoren, jakin da Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoaren kasu zehatzean zenbait ikasle hiru urtekoen ikasgelarik gabe geratu direla Ingelesez Ikasteko Programan.

Aurreko ikasturteetan esleiturik zeukan lerrokopurua murriztu zaio ikastetxeari. Oso kontuan hartu behar da aparteko aurreinskripzio-epean eta ikasturtean zehar matrikulazioen areagotzea gertatzen ari dela.

Hori dela eta, honako hau galdetzen diot Hezkuntza Departamentuari:

Hezkuntza Departamentuak aurreikusten al du Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programaren eskaintza gehitzea eta ikasleen eskaria estaltzea?

Corellan, 2016ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, errenta bermatuari buruzko aurreproiektuaren zenbatespen ekonomikoari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, errenta bermatuari buruzko aurreproiektuaren zenbatespen ekonomikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Foru Gobernuari babesa ematen dioten alderdiek sinatutako Errenta bermatuari buruzko aurreproiektuaren zenbatespen ekonomikoa eskatzen dugu.

Iruñean, 2016ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba foru parlamentaria

Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren organigramari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren organigramari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren egungo organigrama eta lehengo Gobernuarekin zegoena eskatzen ditugu.

Iruñean, 2016ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroako enpresetan kontratazioa laguntzeko aurreikusitako neurriei buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako enpresetan kontratazioa laguntzeko aurreikusitako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak zer neurri aurreikusten du 2016ko abenduaren 31ra bitarte, Nafarroako enpresetan kontratazioa laguntzeko?

Iruñean, 2016ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Foru Ogasunak Nafarroako SICAVetatik lortutako zergen bidezko diru-bilketari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Foru Ogasunak Nafarroako SICAVetatik lortutako zergen bidezko diru-bilketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Foru Ogasunak Nafarroako SICAVetatik lortutako zergen bidezko diru-bilketaren zenbatekoa eskatzen dugu:

1.- 2005etik 2014ra bitarteko diru-bilketa, bi urte horiek barne. Informazioa urte zehaztuta jaso nahi dugu.

2.- Informazio horri berari dagokionez, SICAVen kopurua eta horietako bakoitzak urte bakoitzean ordaindutako zenbatekoa jaso nahi dugu (ez da beharrezkoa SICAVaren izena ematea).

Iruñean, 2016ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroako Gobernuak ETA banda terroristaren biktima nafarren memoria ohoratze aldera 2016an eginen dituen ekitaldiei buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak ETA banda terroristaren biktima nafarren memoria ohoratze aldera 2016an eginen dituen ekitaldiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Herriarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuari zuzendua, idatziz erantzun dakion.

ETA banda terroristaren biktima nafarren memoria ohoratze aldera Nafarroako Gobernuak 2016an eginen dituen ekitaldien xehetasunak jaso nahi ditugu.

Iruñean, 2016ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak zer arrazoi izan zuen Ingeleseztik Ikasteko Programaren ezarpenari buruz 2015eko urrian egindako txostenaren datuak ezagutzera ez emateko.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak zer arrazoi izan zuen Ingeleseztik Ikasteko Programaren ezarpenari buruz 2015eko urrian egindako txostenaren datuak ezagutzera ez emateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuaren 2013ko otsaileko txosten bat baliatu izan du Ingeleseztik Ikasteko Programa dela eta hartu dituen erabakiak justifikatzen saiatzeko.

Txosten hori 2015eko urrian eguneratu zuen Giza Baliabideen Zerbitzu horrek berak, Ingeleseztik Ikasteko Programaren ezarpena gutxieste aldera 2013ko otsaileko txostena baliatzen zen data berean hain zuzen ere.

Horrenbestez, honako hau jakin nahi dugu:

Hezkuntza Departamentuak zergatik ez zituen ezagutzera eman 2015eko urriko txosteneko datuak, 2013ko otsailekoekin egin zuen bezala?

Corellan, 2016ko martxoaren 16an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Ingelesez Ikasteko Programa ezarria duten ikastetxeen kanpo ebaluaziorako txostenei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Ingelesez Ikasteko Programa ezarria duten ikastetxeen kanpo ebaluaziorako txostenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

2014ko ekainaren 13an, Hizkuntzen eta Hezkuntza Ikuskapenaren zerbitzuetako zuzenda-

riek –azken hori, egun, Hezkuntza Departamentuko Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusia da– idazki bat sinatu zuten, zeinaren bidez ezartzen baitzen Hezkuntza Ikuskapenaren Zerbitzuko Atala izanen zela Ingelesez Ikasteko Programa ezarria duten ikastetxeen kanpo-ebaluazioa eginen zuela, Hizkuntzen Zerbitzuko langileen laguntzarekin. .

Erabakitakoari jarraikiz, ebaluazio hori 2. mailan eginen da, Hizkuntzen Zerbitzuak 2012-2013 eta 2013-2014 ikasturteetan egindako ebaluazioekiko konparazio bat egin ahal izateko.

Akordioan orobat jasotzen zen departamentuko Hezkuntza Ikuskapenaren Zerbitzuak txosten bat eginen zuela, ebaluazioaren ondorio nagusiekin, 2014-2015 ikasturtearen amaieran, eta Hizkuntzen Zerbitzuak, berriz, baloraziozko jarraipen-txosten bat eginen zuela.

Horrenbestez, Hezkuntza Departamentuari honako hau galdetzen diogu:

– Egin al dira txosten horiek?

– Zein izan dira ondorioak?

Corellan, 2016ko martxoaren 16an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, 2015ean justifikatu gabe huts egindako mediku-hitzorduei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, 2015ean justifikatu gabe huts egindako mediku-hitzorduei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Orain dela zehazki urtebete, UPNren lehengo Gobernuak Osasun Departamentuak komunikazio-kanpaina bat abian jarri zuen, herritarrak kontzientziatze aldera zer garrantzitsua den zitazio-unitateei jakinaraztea norbera ez dela joanen zita mediko batera edo proba diagnostiko batera, hartara efizientzia handiagoa lortuko baita agenda

medikoen kudeaketan, auzi hori hain baita garrantzitsua itzarote-zerrenden kudeaketan.

Une hartan ematen ziren datuak kezkarriak ziren; izan ere, 10 pertsonatik 3k –hau da, % 30ek– ez zuen aurretiaz jakinarazten ez zela zita medikora joanen. Zifra absolutuetan, espezialisten kontsultetan urtero 74.000 zita huts egiten zirela zenbatesten zen; hau da, kontsulta guztien % 6,8. Proba diagnostikoen kasuan, urtean 18.000koa zen huts egindako ziten kopurua –kontsulta guztien % 4–; oinarrizko osasun-laguntzaren kasuan, berriz, abisatu gabe huts egindako kontsultak 130.000 ziren –kontsulta guztien % 2,7–.

Kontzientziazio-kanpaina abian jarri eta urtebetera, 2015ean justifikatu gabe huts egindako ziten datuak jaki nahi ditugu, honako hauen arabera xehakaturik:

– Espezialisten kontsultak, bai lehen kontsultan bai hurrengoetan edo azterketa medikoetan.

– Proba diagnostikoak.

–Oinarrizko osasun-laguntza

Horretaz gain jakin nahiko genuke ea datu objektiborik dagoen jakin ahal izateko zeintzuk diren huts egiteko arrazoiak; esaterako, jakinarazi edo erregistratu gabeko bizileku-aldaketak, postarekin izandako arazoak... Eta, baiezkotan, zer neurri hartuko dira?

Iruñean, 2016ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, gizarteratze errentak jaso dituzten familia-unitateek jasotako laguntza osagarri eta bereziei buruzkoa.

MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, gizarteratze errentak jaso dituzten familia-unitateek jasotako laguntza osagarri eta bereziei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako

kide den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

“Irauteko baliabiderik ez duten familientzako diru-laguntzak” kontusaila dela-eta orain dela gutxi jakin dugu 2015eko ekitaldian 12.875 familia-unitatek jaso dutela gizarteratze-errenta.

– Familia-unitate horiek beste zer laguntza osagarri jaso dituzte etxebizitzaren, horniduren, elikaduraren, laguntza berezien eta beste edozein arlotan, beren gizarte-babesa lortzera bideratuak?

– Familia-unitate bakoitzak kontzeptu osagarri bakoitza dela-eta jasotako zenbatekoa, baldin eta halakorik badago.

Iruñean, 2016ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, erakunde publikoek eta Vianako Printzea Erakundeak balio artistiko eta historikoko eraikinetan egindako inbertsioei eta gastuei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, erakunde publikoek eta Vianako Printzea Erakundeak balio artistiko eta historikoko eraikinetan egindako inbertsioei eta gastuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Erakunde publikoek eta Vianako Printzea Erakundeak balio artistiko eta historikoko eraikinetan

egindako inbertsioei eta gastuei dagokienez, honako hau jakin nahi dut:

- Administrazio publikoek eta Vianako Printzea Erakundeak 2007tik gaur arte urtez urte finantzatu eta egindako proiektuen, inbertsioen eta gastuen zerrenda, jarduketa horietako bakoitzaren zenbatekoa eta titulartasuna nori dagokion zehaztuta.

Iruñean, 2016ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lantaldea, Foru Berria berraztertze, gaurkotezko eta Nafarroaren XXI. mendeko errealitate sozialera egokitzeko.

FORU ARAUBIDEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Foru Araubideko Batzordeak 2016ko martxoaren 15eko erabaki bat igorri dio Legebiltzarreko Mahaiari, Foru Berria berraztertze, gaurkotezko eta Nafarroaren XXI. mendeko errealitate sozialera egokitzeko lantaldea eratzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 55.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Erabaki hori jasotzat ematea.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia, Foru Berria berraztertze, gaurkotezko eta Nafarroaren XXI. mendeko errealitate sozialera egokitzeko lantaldea eratzekoa

1. Foru Araubideko Batzordean lantalde bat eratzea, Foru Berria berraztertze, gaurkotezko eta Nafarroaren XXI. mendeko errealitate sozialera egokitzeko.

2. Epe bat ematea, 2016ko apirilaren 1ko 12:00etan bukatuko dena, parlamentu-talde eta foru parlamentarien elkarte bakoitzak ordezkaria eta ordezko bat izenda ditzan Legebiltzarreko Mahaiari zuzendutako idazki baten bidez.

3. Txostena egiteko epea lantaldea bukatuko da eratu eta hiru hilabetera, deusetan galarazi gabe onesten ahalko diren luzapenak.

4. Erabaki hau Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraztea, beharrezkoa dena xeda dezan aipatu lantaldearen eraketari buruz."

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikari lanpostu bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Zerbitzu Orokorretako buruak deialdi baten proposamena aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikari lanpostu bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko, zeina Zerbitzu Juridikoek eta Kontu-hartzaileak ontzat eman baitute.

Proposamen horren inguruan, eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 5. artikuluan esleitutako eskumenen arabera, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikari lanpostu bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko deialdiaren oinarriak onestea, eta espedientea abiatzeko agindua ematea.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin, bai eta Parlamentuko web orrian eta iragarki-oholean ere.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikari lanpostu bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko.

Hauk dira deialdiaren oinarriak:

1. oinarria. Xedea.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikari lanpostu bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzea.

1.2. 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan xedaturikoarekin bat gauzatuko da oposizioa, eta osagarri moduan Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua eta hori garatu eta betearazteko

Sarrera Erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretua aplikatuko dira.

1.3. Deialdi honen bidez izendatutako izangaiak Nafarroako Parlamentuko funtzionarioentzat eta, bereziki, teknikarien kidegoarentzat –teknikari diplomadunen eskala– ezarritako eginkizunak bete eta horien eskubide eta betebeharrak izanen ditu. Eginkizunak Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 8.2 artikuluan teknikarien kidegoarentzat ezarrita daudenak izanen dira, oro har: eginkizun profesionalak edo zuzendaritzakoak, horietan aritzeko unibertsitateko diplomadun titulua eskatzen dutenak eta Nafarroako Parlamentuko beste funtzionario batzuei esleiturik ez daudenak.

Era berean, eta modu zehatzagoan, zerbitzuaren eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren izaera teknikoko eta administrazioko kudeaketa, ikerketa eta proposamen jarduerak eginen ditu, haren eskalari dagozkion eginkizunen barnean, Nafarroako Parlamentuko administrazioko antolamenduari buruzko 1992ko azaroaren 9ko Erregelamenduan Zerbitzu bakoitzerako ezarritakoaren arabera.

Lanpostua Nafarroako Parlamentuko Kontuhartzaile eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuari atxikita dago, eta bertan honako eginkizun hauek garatuko ditu, besteak beste:

a) Lansari-sistemaren kudeaketa integrala (klase pasiboen sistema, gizarte segurantzaz, zergak eta abar).

b) Kontabilitate publikoko sistemaren kudeaketa integrala (aurrekontuen arloa, kontabilitate orokorraren arloa, diruzaintzako kontrola, inbentarioen kontrola eta abar).

c) Kontabilitateari eta ordainsariei aplikatutako teknologien kudeaketa.

d) Zerbitzuak berezko dituen gainerako eginkizunak.

1.4. Izendapenak Nafarroako Parlamentuko nomina eta plantillako funtzionario bihurtuko du izendatua, indarreko xedapenetan adierazitako eskubide eta betebeharrak guztiekin.

1.5. Lanpostua B mailakoa da eta horren lantsariak izanen dira maila horri dagozkionak gehi Nafarroako Parlamentuko plantilla organiko indardunean zehazten diren osagarriak.

1.6. Izendatzen den funtzionarioa Gizarte Segurantzako araubide orokorrean sartu eta afiliatuko da, araubide horren babesean, salbu eta Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuan eta horren osagarri diren xedapenetan aipatzen den eskubide pasiboen eta osasun eta gizarte laguntzaren araubideko kidea bada jadanik, kasu horretan aukera izanen baitu araubide horretan segitzeko edo Gizarte Segurantzaren afiliatzeko.

1.7. Lanaldia goizeko lanaldi jarraitua eta goiz eta arratsaldekoa izanen da, Zerbitzuaren antolamenduaren arabera, eta Nafarroako Parlamentuko organo eskudunek edonoiz aldatu ahal izanen dute.

2. oinarria. Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Oposizio honetan onartuak izateko, izangaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta lanpostua betetzeko prozedurak irauten duen denbora guztian, harik eta lanpostua betetzeko unera arte, honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Espainiar edo Europar Batasuneko beste estatu bateko nazionalitatea izatea, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio-eremuko estatu batekoa, itun horiek langileen zirkulazio librea ezartzen badute.

Espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu bateko edo aipatu nazioarteko itunek ukitutako estatuetakoa herritarren ezkontideek ere parte har dezakete; betiere, zuzenbidez bereizita ez badaude. Orobat, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, hogeita bat urtetik beharokoak badira, edo gorakoa, haien kontura biziz gero.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina ez gainditzea.

c) Unibertsitateko diplomadun edo arkitekto edo ingeniari teknikoaren tituluaren edo ofizialki horien baliokidetzat edo goragokotzat deklaritzen den baten jabe izatea edo eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean hori eskuratzeko moduan egotea. Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da.

d) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia izan ez izana, ezta diziplinako irazpen bidez kaleratu izana ere.

2.2. Lanposturako izendatua izateko proposatua den izangaia deialdi honetako 8. oinarrian ezarritako epe eta eran frogatu beharko ditu baldintza horiek.

3. oinarria. Eskabideak.

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak Nafarroako Parlamentuko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira (Navas de Tolosa kalea, 1 - Iruña), edo Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetakoren batean.

3.2. Eskabidea posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian aurkeztuko da, eskabideari postako langileek data eta zigilua jar diezazkionten, posta ziurtatuz bidali aurretik.

3.3. Eskabideak I. eranskinean adierazitako ereduaren arabekoak izanen dira, eta eskuratu ahalgo dira Nafarroako Parlamentuaren erregistro orokorrean nahiz Nafarroako Parlamentuaren webguneko (www.parlamentodenavarra.es) "Transparencia/Listas y convocatorias Personal/Convocatorias públicas de personal/Ejercicio 2016" izeneko atalean.

3.4. Parte hartzeko eskabidean izangaiek adierazi behar dute baldintza guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

3.5. Parte hartzeko eskabidearekin batera, izangaiek Nortasun Agiri Nazionalaren, pasaportearen edo beste edozein identifikazio-agiri ofizialen fotokopia ere aurkeztu beharko dute.

3.6. Espainiako nazionalitatea ez duten pertsonak beren identitatea eta nazionalitatea frogatzen dituzten agirien fotokopiak aurkeztu beharko dituzte eta, zein den kasua, 2.1.a) oinarrian nazionalitateari eta ahaidetasunari buruz eskatzen diren baldintzena ere bai. Gainera, zinpeko aitortpena edo hitzmatea aurkeztu beharko dute, beren jatorrizko herrialdean funtzio publikoan aritzea eragozten dien inolako diziplina-zehapenik edo kondena penalik ez izateari buruzkoa.

3.7. Desgaitasun aitortua duten izangaiek, arketak egin ahal izateko denbora- edo baliabide-egokitzapenik behar badute, horiek eskabidean eskatu beharko dituzte; horretarako, aparteko orri batean adierazi beharko dute nolako desgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, organo eskudunak emandako legeko desgaitu-izaeraren frogagiriaren kopia ere aurkeztu beharko dute.

4. oinarria. Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

5. oinarria. Izangaien onarpena. Behin-behineko eta behin betiko zerrendak.

5.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du. Zerrenda horretan jasoko dira onartutako izangaien izen-deiturak. Izangai baztertirik ez badago, zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda. Halaber, Nafarroako Parlamentuko iragarki-oholean eta www.parlamentodenavarra.es webgunean, "Transparencia/Listas y convocatorias Personal/Convocatorias públicas de personal/Ejercicio 2016" izeneko atalean, hain zuzen ere, argitaratuko da.

5.2. Interesdunek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izanen dituzte behin-behineko zerrendaren aurka eta, akatsik izan bada, zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hamar egun balioduneko epearen barruan.

5.3. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzirik, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean eta www.parlamentodenavarra.es webgunean, "Transparencia/Listas y convocatorias Personal/Convocatorias públicas de personal/Ejercicio 2016" izeneko atalean, hain zuzen ere, argitaratuko da.

6. oinarria. Epaimahai kalifikatzailearen kideak, eraketa eta jarduna.

6.1. Epaimahai kalifikatzailea honako kide hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: Maiorga Ramirez Erro jauna, Nafarroako Parlamentuko 1. idazkaria.

Epaimahaiburuaren ordezkoa: Oscar Arizcuren Pola jauna, Nafarroako Parlamentuko 2. idazkaria.

Epaimahaikidea: Jorge Balduz Gil jauna, Nafarroako Arartekoaren Bulegoko administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikaria.

Epaimahaikidearen ordezkoa: Fernando Zulet Recalde jauna, Nafarroako Parlamentuko kontuhartzailea.

Epaimahaikidea: Ainara Rodríguez Jiménez andrea, Nafarroako Kontuen Ganberako auditoria-ko teknikaria.

Epaimahaikidearen ordezkoa: Miguel Ángel Aurrecochea Gutiérrez jauna, Nafarroako Kontuen Ganberako auditoriako teknikaria.

Epaimahaikidea: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatutako kide bat.

Epaimahaikidearen ordezkoa: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatutako kide bat.

Idazkaria: Manuel Pulido Quecedo jauna, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

Idazkariaren ordezkoa: Miguel Esparza Oroz jauna, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

6.2. Epaimahaikideek parte ez hartzeko eta haiek errefusatzeko lege ezarritako arazoak gertatzeagatik epaimahaiaren osaera aldatuko balitz, halaxe jakinaraziko litzateke, izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera.

6.3. Epaimahai kalifikatzailea hautaprobak hasi aurretik eratu beharko da. Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak hautatutako ordezkarien izendapena onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzearekin batera egingen da.

6.4. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, gutxienez ere kideen gehiengo osoa bildu gabe. Halaber, epaimahaiaren eraketa eta jarduna baliodunak izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak edo haien ordezkoek bertan egon beharko dute.

6.5. Epaimahaiak gehiengo ez ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatu eta aplikatzeko moduari buruz sor daitezkeen gorabehera guztiak.

6.6. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta organo dei egileari horren berri emanen diote, baldin eta Herri Administrazioen Araubide Juridikolari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean parte ez hartzeko aipatzen diren egoeretakoren batean badaude. Izangaiak, halaber, zilegi dute epaimahaikideak errefusatzeko, egoera horietako bat gertatzen denean.

6.7. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake, proba batzuetan nahiz guztietan. Aholkulari horiek dagokien espezialitate teknikoan aritzera mugatuko dira, eta epaimahaiari horietan baizik ez diote lagunduko.

7. oinarria. Oposizioaldia.

7.1. Oposizioaldia 2016ko laugarren hiruilekoan hasiko da, Nafarroako Parlamentuko iragarki-oholean eta webgunean gutxienez ere 15 egun natural lehenago iragarriko diren tokian, egunean eta orduan.

7.2. Oposizioak ariketa hauek izanen ditu:

a) Lehen ariketa:

Deialdi honen II. eranskinen argitaraturiko galdegiari buruz Epaimahaiak egiten dituen galdera eta kasuak erantzun beharko dira. Ariketa honek bost orduko iraupena izanen du gehienez, eta bi saiotan banatu ahalko da.

Epaimahaiak hala erabakitzen badu, izangaiek finantza-taulak eta logaritmoenak erabili ahal izanen dituzte proba hau egiteko, baina kalkulagailu programagarririk ezin izanen da inola ere erabili.

b) Bigarren ariketa:

Ariketa hau gehienez ere 5 orduan egin beharko da, eta bertan 3 gai azaldu beharko dira idatziz. Gaiak deialdiaren III. eranskinetik zozketa bidez aterako dira, I., II. eta III. zatietatik bana.

c) Hirugarren ariketa:

Ariketa idatzia izanen da, eta gehienez lau orduan egin beharko da. Epaimahaiak proposaturiko ariketa praktikoa bat edo gehiago egin beharko dira, deialdiaren III. eranskinen II. eta III. zatietan agertzen diren gaiekin zerikusia dutenak.

Ariketa hau egiteko, izangaiek soilik erabili ahal izanen dituzte epaimahaiak aurretiaz emandako lege-testuak edo kontsulta-liburuak.

7.3. Ariketak plika itxien bidez egiten dira. Plikak jendaurreko ekitaldian irekiko dira, eta ekitaldi hori gutxienez 24 ordu lehenago iragarriko da Nafarroako Parlamentuko iragarki-oholean eta webgunean.

7.4. Oposizioaldiko ariketetan gehienez ere 100 puntu lortu ahalko dira, honela banatuta:

a) Lehen ariketa: Gehienez ere 40 puntu lortu ahalko dira, eta bazterturik geratuko da gutxienez 20 puntu lortzen ez dituenak.

b) Bigarren ariketa: Gehienez ere 40 puntu lortu ahalko dira, eta bazterturik geratuko da gutxienez 20 puntu lortzen ez dituenak. Era berean, bazterturik geratuko da ariketaren hiru gaietakoren batean 0 puntu lortzen duen izangaiak.

c) Hirugarren ariketa: Gehienez ere 20 puntu lortu ahalko dira, eta bazterturik geratuko da gutxienez 10 puntu lortzen ez dituenak.

7.5. Proba bakoitzaren kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak proba hori gaintu duten izangaien eta haiek izandako kalifikazioen zerrenda jarriko du ikusgai Parlamentuko iragarki-oholean eta webgunean; halaber, hurrengo proba zein tokian, egunetan eta orduetan egiten den adieraziko du, gutxienez ere 48 ordu lehenagotik.

7.6. Proba bakoitzerako deialdi bakarra egiten da. Izangaiek aldean izan beharko dute nortasun agiri nazionala, pasaporteak, gidabaimena edo epaimahaiaren iritziz identifikaziorako nahikoa den beste agiriren bat. Azterketan azaltzen ez diren edo nortasuna frogatzen ez duten izangaiak oposiziotik baztertuko dira.

7.7. Oposizioko probak egiteko orduan, desgaitasuna izanda halaxe eskatzen duten pertsonen denbora eta baliabide aldetik posible diren egokitzapenak izanen dituzte, eskabidean azaltzen dutenaren arabera.

8. oinarria. Probak gaintzen dituztenen zerrenda, izendapen proposamena eta agirien aurkezpena.

8.1. Azken ariketa bukatu ondoren, oposizioa gaintu duten izangaien zerrenda argitaratuko du epaimahaiak Nafarroako Parlamentuko iragarki-oholean eta webgunean, lortutako puntuazioaren araberrako hurrenkeran. Azken emaitzan berdinke-tarik izanez gero, lehen ariketan puntu gehien lortu dituen izangaiaren alde ebatziko da. Eta, berdinketak irauten badu, bigarren eta hirugarren ariketetan ondoz ondo eta hurrenkera horretan lortutako puntuazioak hartuko dira kontuan.

8.2. Halaber, epaimahai kalifikatzaileak puntu gehien lortu dituen izangaiak izendatzeko proposamena igorriko dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, oposizioko aktekin eta gainerako agiriekin batera. Proposamen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.3. Proposaturiko izangaiak, izendapen proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 30 egun natural igaro baino lehen, ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dio Nafarroako Parlamentuari:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua, edo izangaiaren nazionalitatea eta identitatea frogatzen dituen beste agiri baliokideren batena.

b) Deialdiaren 2.c) oinarrian eskatzen den titularen fotokopia konpultsatua edo titulua lortzeko eskubideak ordaindu izanaren agiriarena.

c) Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Atalak emandako txostena, interesdunak karguari dagozkion eginkizunetan aritzea eragotziko liokeen eritasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela frogatzen duena.

Desgaitasunen bat alegatu duten izangaiek, gainera, desgaitasuna deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria aurkeztu behar dute, desgaitasuna deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria, balorazio eta orientazio talde eskudunek luzatua.

d) Eginkizun publikoetarako ezgaitua edo gabetua ez izatearen, eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik berezia ez izatearen zinkeko aitortpena.

e) Zin egitea edo hitz ematea Nafarroako Foru Eraentza begiratu, Konstituzioari eta legeei men egin eta karguaren berezko eginkizunak zintzo beteko dituela.

Nafarroako Administrazio Publikoren bateko langile finko diren izangaiek, gainera, izaera hori eta aurreko administrazioeko espediente pertsonalean ageri diren inguruabar eta aurrekari guztiak frogatzen dituen ziurtagiria aurkeztu behar dute, hots, sarrerari, antzinatasunari, mailari, egoera administratiboari eta abarri buruzkoa.

8.4. Aipatu epearen barrenean eta aski justifikaturik dauden ezinbesteko kasuak salbuetsiz arestiko agiriak aurkezten ez dituztenak ezin izanen dira izendatu, eta ordura arteko haien egintza guztiak deuseztaturik geldituko dira, euren eskabidearen faltsukeria dela eta legokiekeen erantzunbeharra galarazi gabe.

8.5. Aurreko idatz-zatian aurreikusitakoa gertatuz gero, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hutsune hori betetzeko, probak gainditu dituztenen zerrendan –8.1 idatz-zatian aipatutakoan, hain zuzen ere– hurrengo den izangaia hartuko du, eta azken horrekin ere aurreko idatz-zatietan adierazitako moduan jokatu da.

9. oinarria. Izendapena.

9.1. Deialdi honen 8.3 oinarrian aipatzen diren dokumentuak aurkeztu ondoren, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak funtzionario izendatuko du proposatutako izangaia. Izendapen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

9.2. Izendapena jakinarazi eta hilabeteko epean, izangaia karguaren behin betiko jabetza hartu behar du, Nafarroako Parlamentuko legegari nagusiaren aurrean.

9.3. Ulertuko da izangai batek, epe horretan lanpostuaz jabetzen ez bada, oposizioaren ondoriozko eskubideei uko egiten diela. Kasu horretan, lanpostua deialdiaren 8. oinarrian aipatzen den gainditutakoan zerrendan hurrengo dagoen izangaiarekin beteko da.

10. oinarria. Aurkeztutako agiriak.

10.1. Hautagaiek, baldin eta erreklamazio edo errekurtsorik paratzen ez bada, aurkeztu dituzten agiriak berreskuratzen ahalko dituzte, hala eskatu ondotik. Eskaera hiru hilabeteko epean aurkeztu ahalko da, beste hiru hilabete igaro direnean izendapen-erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

10.2. Aurreko idatz-zatian ezarritako epea bukatzen bada agiriak berreskuratzeko eskaerarik egin gabe, izangaia agiriak berreskuratzeari uko egin diola ulertuko da, eta, beraz, horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsitu egingen dira.

11. oinarria. Errekurtsoak.

11.1. Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsuetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsoa, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontaktzen hasita bi hilabeteko epean.

11.2. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak edo epaimahai kalifikatzaileak deialdi hau aplikatzeko erabakitzen dituzten gainerako egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko da, Parlamentuko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

I. ERANSKINA (Eskabide-eredua)

1) Norberaren datuak

Izen-deiturak: _____ . NAN zk.: _____ (erantsi fotokopia).

Jaioteguna: _____

Helbidea: _____ Herria: _____

Probintzia: _____

Posta kodea: _____

Telefonoa(k): _____ / _____

Helbide elektronikoa: _____

2) Desgaitasunaren egiaztagiria (bidezkoa denean bakarrik)

Desgaitasuna dut eta eskabidearekin batera horren frogagiria aurkeztu dut. (Legezko desgaitu-izaeraren frogagiriaren fotokopia erantsi da).

Desgaitasuna dut eta, horrenbestez, azaltzen dudan egokitzapena eskatzen dut, adierazten ditudan arrazoiengatik. (Beste orri batean, minusbaliotasunaren arrazoiak eta eskatutako egokitzapenak azalduko dira).

3) Horrez gain, hauxe adierazten dut:

– Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasunik edo akats fisiko edo psikikorik, eta indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik ez dudala.

– Ez naizela diziplina espediente bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik berezia izan eta ez naizela izan desgaitua, ez eta gabetua ere, eginkizun publikoak betetzeko.

– Baditudala deialdian eskatzen diren tituluak eta 2. oinarriko baldintza guztiak betetzen ditudala, eskabi-deak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

– Konpromisoa hartzen dudala, izendatzen banaute, deialdiaren 8. oinarrian aipatzen diren agiriak aurreikusiriko epean aurkezteko, bai eta izendapena jakinarazi eta hurrengo hilabetearen barruan lanpostuaren jabetza hartzeko ere.

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikari lanpostu bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko deialdian onartua izatea ESKATZEN DUT. Deialdia _____ zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, _____(e)(a)n.

_____ (e)n, 2016ko _____ aren ____ (e)(a)n.

(Sinadura)

Oharrak:

– Eskabidearekin batera, erantsi NANaren, pasaportearen edo beste edozein identifikazio-agiri ofizialen fotokopia.

– Eskabidearekin batera, erantsi legezko desgaitu-izaeraren frogagiriaren fotokopia bat (bidezkoa bada).

– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, jakinarazi nahi dizugu emandako datu pertsonalak Nafarroako Parlamentuaren hainbat fitxategitan erregistratuko direla; zehatz-mehatz, “Giza Baliabideak” izenekoan, eta zuk horretarako baimena ematen duzula. Bildutako datuen helburua da Nafarroako Parlamentuko langileen giza baliabideak erregistratzeko eta kudeatzeko behar diren datuak eskuratzeko. Haren erabilerak honakoak jasotzen ditu: langileak hautatu eta lanpostuak betetzeko prozesuak, langileen prestakuntza, bateraezintasunen gaineko kontrola, lan arriskuen prebentzioa, altak eta bajak eta Gizarte Segurantzari eta, kasua bada, mutualitateei eta gizarte aurreikuspeneko entitateei eginiko komunikazioak, bai eta lanean bertaratzeari buruzko kontrola ere.

Halaber, jakinarazi nahi dizugu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta haien tratamenduari kontra egiteko eskubideak dituzula. Eskubide horietaz baliatzeko, idazki bat zuzendu beharko diozu Nafarroako Parlamentuko Mahaiairi, honako helbidera: Navas de Tolosa kalea, 1. 31002 Iruña (Nafarroa). Tel.: 948 209 209 Faxa: 948 228 444. Edo, bestela, posta elektronikoko honako helbidera: registro@parlamentodenavarra.es, horretarako egiten duzun eskaera adierazita.

NAFARROAKO PARLAMENTUKO LEHENDAKARI ANDREA

II. ERANSKINA

Lehen ariketako gaiak

1. gaia: Kontabilitate Publikoaren 2010eko Plan Orokorra:

Kontabilitate Publikoaren esparru kontzeptuala. Onarpen eta balorazio arauak. Urteko kontuak. Kontuen taula. Definizioak eta kontabilitateko harremanak.

2. gaia: Gastuen aurrekontua betetzearen ondoriozko eragiketen kontabilizazioa.

3. gaia: Diru-sarreraren aurrekontua betetzearen ondoriozko eragiketen kontabilizazioa.

4. gaia: Finantzaketa atxikiko gastuak.

5. gaia: Ibilgetu finantzarioaren eta ez-finantzarioaren kontabilitatea.

6. gaia: Zorpetzearen eta altxortegiaren kontabilitatea.

7. gaia: Ekitaldiaren amaieran egin beharreko eragiketak.

8. gaia: Aldizkako kontabilitate informazioa.

9. gaia: Kostuen kontabilitatea. Kontzeptuak eta sailkapenak. Kostu ereduak eta metodoak.

10. gaia: Estatistika:

10.1. Kokapen neurriak: zentralak eta ez-zentralak.

10.2. Sakabanatze neurriak: absolutuak eta erlatiboak.

10.3. Biltze neurriak.

10.4. Zenbaki indizeak: bakunak eta konposatuak. Serie estatistikoen deflaktazioa. Loturak eta oinarri aldaketak. Indize erabiltzenak. KPIren aipamen berezia.

11. gaia: Finantzen matematika:

11.1. Kapitalizazio sinple eta konposatua; deskontuak.

11.2. Errentak, maileguak eta jesapenak.

III. ERANSKINA

Bigarren eta hirugarren ariketako gaiak

I. zatia

1. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa: printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubideak eta betebeharrak.

2. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa: Gorte Nagusiak. Diputatuen Kongresua eta Senatua. Osaera eta eginkizunak.

3. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa: Gobernua eta Estatuko Administrazioa.

4. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa: Botere Judiziala: konstituzio taxuketa. Konstituzio Auzitegia: osaera, izaera eta eskumenak.

5. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa: Estatuaren lurralde antolamendua: printzipioak. Autonomia erkidegoak: haien konstituzio printzipioak eta haien erakundearen antolamendua. Toki administrazioa.

6. gaia: Europar Batasuneko erakundeak: Kontseilua. Batzordea.

7. gaia: Europar Batasuneko erakundeak: Europako Parlamentua. Kontuen Auzitegia. Justizia Auzitegia.

8. gaia: Europar Batasuneko antolamendu juridikoaren iturburuak: Europar Batasuneko antolamendu juridikoa. Jatorrizko zuzenbidea. Zuzenbide eratorria. Erakundearen egintzak.

9. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria. Nafarroako Foru Erauzte Berrezarri eta Hobetzeari buruzko testua: Izaera eta esanahia. Egitura eta sistematika. Aurrekariak. Prestaketa. Nafarroaren eskumenak.

10. gaia: Nafarroako Parlamentua edo Gorteak. Erreferentzia historiko laburra. Instituzioaren autonomia. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua: Nafarroako Parlamentuaren eraketa. Legegintzaldia eta bilkuraldiak.

11. gaia: Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua: Foru parlamentariak. Parlamentu-taldeak.

12. gaia: Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua: Nafarroako Parlamentuaren antolaketa. Lehendakaria, Mahaia eta Eledunen Batzarra. Batzordeak, Osoko Bilkura eta Batzorde Iraunkorra.

13. gaia: Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua: Parlamentuaren jardura: bilkurak, gai zerrenda, bozketak, epeen zenbaketa eta agirien aurkezpena. Argitalpenak eta bere lanen argitaratzea.

14. gaia: Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua: legegintza prozedura arrunta. Legegintza prozedura bereziak. Jabeldurak eta galderak. Mozioak.

15. gaia: Nafarroako Gobernua. Eginkizunak. Osaera. Nafarroako Gobernuaren lehendakaria. Haren hautapena. Nafarroako Parlamentuaren aitzinean duen erantzukizuna. Nafarroako Parlamentuaren desegitea.

16. gaia: 15/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzkoa: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren antolaketa. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren jarduna.

17. gaia: Nafarroako Kontuen Ganbera: haren izaeraren azterketa laburra, eginkizunak, antolamendua eta funtzionamendua.

18. gaia: Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa. Arartekoaren Estatutua. Eginkizunak, antolakuntza eta funtzionamendua.

II. zatia

1. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa: administrazio prozedurako interesdunak. Administrazio publikoetako jarduera. Arau orokorrak, terminoak eta epeak.

2. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa: administrazio xedapenak eta egintzak. Administrazio egintzen betebeharrak. Egintzen eraginkortasuna. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna.

3. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa: administrazio prozeduren xedapen orokorrak: prozeduraren abiaraztea, antolamendua, instrukzioa eta amaiera. Beteazpena.

4. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa: Egintzak administrazio-bidean berraztertzea: ofiziozko berrikuspena eta administrazio errekurtsioak.

5. gaia: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa: Sektore Publikoko xedapen orokorrak, jarduketa-printzipioak eta funtzionamendua. Administrazio publikoaren organoak.

6. gaia: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea: zehatzeko ahalmena. Administrazio publikoaren, haien agintarien eta haien zerbitzuko gainerako langileen erantzukizuna.

7. gaia: 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, Kontratu Publikoari buruzkoa: aplikazio eremua eta aplikatu beharreko arau orokorrak. Kontratistak. Nafarroako Administrazio Publikoaren kontratuak: xedapen orokorrak. Esleipenaren aurreko jarduketak.

8. gaia: Nafarroako Administrazio Publikoaren kontratuak: Esleipena: xedapen orokorrak eta esleipen prozedurak.

9. gaia: Nafarroako Administrazio Publikoaren kontratuak: esleipena: publizitate arauak eta epeak. Esleipena, burutzea eta formalizazioa.

10. gaia: Nafarroako Administrazio Publikoaren kontratuak: kontratuak gauzatzea: xedapen orokorrak. Kontratu aldaztea, etetea eta lagatzea.

11. gaia: Nafarroako Administrazio Publikoaren kontratuak: ordainketa eta prezioen berrikuspena. Kontratuak iraungitzea eta haien balio gabetasuna.

12. gaia: Nafarroako Ondareari buruzko Foru Legea. Haren edukiaren azterketa.

13. gaia: Nafarroako Foru Komunitateko tributuaren antolamendua: zergak: kontzeptua eta sailkapena. Kontribuzio bereziak, tasa eta prezio publikoak: kontzeptua eta zergagaia.

14. gaia: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga Nafarroako Foru Komunitatean. Azterketa laburra.

15. gaia: Balio Erantsiaren gaineko Zerga Nafarroako Foru Komunitatean. Azterketa laburra.

16. gaia: Gizarte Segurantzaren araubide orokorra: enpresen inskripzioa, langileen afiliazioa, altak eta bajak, kotizazioa eta diru-bilketa.

17. gaia: Gizarte Segurantzaren araubide orokorra. Babes jarduna: aldi baterako ezgaitasuna, baliaezintasuna eta amatasuna. Kotizaziopeko erretiroari buruzko aipamen laburra.

18. gaia: 705/1999 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, Foru erkidegoetako legebiltzarren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren arteko itun bereziei buruzkoa. Horren aplikazioa Nafarroako Parlamentuan.

III. zatia

1. gaia: Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua: langileak eta funtzionarioak. Sartzea eta kargu uztea. Administrazio egoerak.

2. gaia: Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua: lanpostuak betetzea. Funtzionarioen eskubideak, betebeharrak eta bateraezintasunak. Diziiplina araubidea.

3. gaia: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutua: haren edukiaren azterketa eta Nafarroako Parlamentuko langileei osagarri moduan aplikatzea.

4. gaia: Nafarroako Parlamentuaren Antolaketa-rako Erregelamendua: Parlamentuko Administra-zioa. Nafarroako Parlamentuko Zerbitzuak.

5. gaia: Nafarroako Parlamentuaren Antolaketa-rako Erregelamendua: Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzua. Kontu-hartzailletza.

6. gaia: Nafarroako Parlamentuaren Erregela-mendu ekonomiko-finantzarioa. Aurrekontua: pres-taketa eta onespina. Aurrekontuko aldaketak.

7. gaia: Nafarroako Parlamentuaren Erregela-mendu ekonomiko-finantzarioa. aurrekontua bete-tzea. Kontuen likidazioa eta onespina.

8. gaia: Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea: egitura eta haren edukiaren azterketa. Atariko Titulua eta I. Titulua.

9. gaia: Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea: Nafarroako Aurrekontu Orokorrak. Egitura eta edukia. Onestea eta betetzea.

10. gaia: Nafarroako Ogasun Publikoari buruz-ko Foru Legea: finantza eragiketak. Abalak. Diruzaintza.

11. gaia: Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea: kontrola. Kontabilitatea. Eran-tzukizunak.

12. gaia: Dirulaguntzei buruzko Foru Legea: xedapen orokorrak.

13. gaia: Dirulaguntzei buruzko Foru Legea: laguntzak emateko eta kudeatzeko prozedurak. Diru-laguntzak itzultzea.

14. gaia: Dirulaguntzei buruzko Foru Legea: diru-laguntzen jarraipena eta kontrola. Arau-hauste eta zehapenak.

15. gaia: 11/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan Administrazio Elektronikoa ezartzekoa.

16. gaia: Datu pertsonalen babesa. 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa.

Oharra: Gaiak deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizia-lean argitaratzen den egunean indarrean dagoen legediaren arabera eskatuko dira, 39/2015 eta 40/2015 Legeetan araututakoak izan ezik; izan ere, horiek 2016ko urrian hartuko dute indarra.